

# BESTELAKO XEDAPENAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

## 5512

*EBAZPENA, 2015eko abenduaren 17koa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, lurren balioespenak onartzeari buruzkoa, jabari publiko hidraulikoko ondasunen erabilera-kanona kalkulatzeko xedez.*

Uren Legearen testu bateginaren VI. tituluan (uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua), jabari publiko hidraulikoaren erabileraren araubide ekonomiko-finantzarioa arautzen da, eta, hain zuzen ere, titulu horren 112.1 artikuluan, jabari publiko hidraulikoaren ondasunak okupatu, erabili eta aprobeztatzeagatik tasa bat ezartzen da, jabari publiko hidraulikoko ondasunen erabilera-kanonak deritzona.

Jabari publiko hidraulikoko lurren okupazioari dagokionez, arro-erakundeak zehaztuko du ordainarazpenaren zerga-oinarria, okupatutako lurraren balioa kontuan hartuta, eta erreferentziazat alboko lurren merkatu-balioa hartuko da.

Batetik, orain arte, ez da jendaurrean iragarri ordainarazpenaren zerga-oinarria osatzen duten lurren balioespena. Bestetik, kanona aplikatzen zaien zerga-oinarri horiek zaharkituta geratu dira, ez baitira eguneratu 112. artikuluko horretan jasotako parametroen balioak.

Hori guztia dela eta, beharrezkotzat jotzen da jabari publiko hidraulikoko ondasunak okupatzeagatik indarrean dagoen kanona eguneratzea.

Ondorioz, Uren Legearen testu bategineko 112.4 artikulua eta Uraren Euskal Agentziaren Estatutuak onartzen dituen martxoaren 10eko 25/2015 Dekretuak eta jabari publiko hidraulikoaren Erregelamenduaren 287.1.a) artikulua emandako funtzioak erabiliz, Uraren Euskal Agentzia beharrezkotzat jotzen du hiri-lurzorurako eta landa-lurzorurako balioespen desberdinak finkatzea. Balioespen horiek kontuan hartuko dira jabari publiko hidraulikoaren ondasunen erabilera-kanonaren zerga-oinarria finkatzeko orduan.

Zerga-egitatea osatzen du jabari publiko hidraulikoko lurra okupatzea dakarren edozein jarduera egiteak. Zerga-oinarria okupatutako azaleraren balioa da, euro/metro karratu-tan emana, eta erreferentziazat alboko lurren merkatu-balioa hartzen da. Karga-tasa 100eko 5a da. Hasierako emakidarekin sortuko da lehenengoz kanona; urterokoa izango da, eta dagokion zenbatekoan eskatuko da, emakida edo baimenaren baldintzetan adierazitako epeen barruan, borondatezko epean, kuotaren likidazioa jakinarazten den egunetik hasita hogeita hamar eguneko epearen barruan. Horrela, bada, honako hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jabari publikoaren okupazio-kanonaren zerga-oinarriaren xedea osatzen duten lurren balioespen hauek onartzea:

I. mota. Hiri-lurzorua. Balioa: 238,85 euro/m<sup>2</sup>

II. mota. Landa-lurzorua: Balioa: 9,59 euro/m<sup>2</sup>

Balioespen horiek urtero eguneratuko dira, kontsumoko prezioen indizearen edo hura ordeztzen duen indizearen arabera.

Bigarrena.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du, eta, aukeran, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Uraren Euskal Agentzia honetan, hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 116. artikuluan ezartzen denez (4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori), edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz (lege-testu horren 10.1.j artikuluekin lotuta).

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abenduaren 17a.

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusia,  
IÑIGO ANSOLA KAREAGA.